



Etxarri Aranazko Udala

Kale Nagusia 10 (KP 31820)

udala@etxarriaranatz.eus

www.etxarriaranatz.eus

Tef. 948460004

GAZTETXOKOA DEIALDIA 2021

ETXARRI ARANAZKO UDALEKO AISIALDIKO BEGIRALEAREN LAN POLTSA DEIALDIA

1.-Arau orokorrak.

1.1.-Deialdi honen xedea da lehiaketa-oposizio bidez hiru pertsona kontratatzea 2021/2022 ikasturteko Gaztetxokorako AISIALDIKO ETA DENBORA LIBREKO MONITORE gisa, eta Etxarri Aranazko Udalaren aisialdiko begirale lanposturako zerrenda bat sortzea, euskara jakintzarekin, etorkizunean behin behineko kontratazioak egiteko lan poltsa sortuko da. Nafarroako Enplegu Zerbitzuak lanposturako baldintzak betetzen dituztenen zerrenda baliatuko dugu. Ondotik, hautespren probak gainditzen dutenekin zerrenda osatuko dugu puntuazioaren hurrenkerari jarraikiz.

Zerrenda erabiliko da zehazki Gaztetxoko proiektua gauzatzeko (11-16 urteko gazteentzat) eta behin-behineko kontratazioak egiteko bulegoaren proiektu puntualetan eta honako arlo hauetan: gazteria, haurtzaroa, kirola, kultura eta udal zerbitzuei laguntzea. Halakoetan kontratazioa egokituko da kasuan kasuko lanpostura

1.2.- Lanaldia lanaldi osokoa edo partzialekoa izan daiteke asteko edozein egunetan, asteburuak barne.

Gaztetxoko proiekturako, kontratua azarotik maiatzera arte luzatuko da, biak barne. Begiraleek txandaka lan egingo dute, bikoteka, eta bikoteak aldatu egingo dira asteburuetan. Lanaldia partziala izango da eta zerbitzuaren beharretara egokituko da. Administrazio organo eskudunek noiznahi aldatzen ahalko dute, zerbitzuaren beharren arabera. Gaztetxokoa larunbatetan 17:00etatik 21:00etara eta igandeetan 17:00etatik 20:30etara izango da, eta begiraleek horrez gain asteko ordu erdi igaro beharko dute prestatze lanetan.

1.3.- Lanpostua C mailari dagozkion lansariez hornituko da, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen dagokiona eta momentu bakoitzean erabakiko den osagarriekin.

1.4 .-Lanpostuak euskarazko nahitaezko hizkuntza eskakizun hau du: C1 maila (ahozkoa).

1.5.-Egin beharreko lanak bere mailari eta kategoriari dagozkienak izanen dira, Udalaren administrazio zerbitzuek sostengu ematea barne.

Lanpostuko funtzio nagusiak :

- Proiektua ludikoak, hezkuntza arlokoak, kulturalak eta kirolari lotuak garatzea: adibidez, Gaztetxokoa, Gaztelekua...
- Jarduerak antolatzea, bai aretoetan, bai kanpoan.
- Erabilitako aretoen funtzionamendua kudeatzea.
- Materiala kudeatzea: erosketak, zainketa, kontrola, mantenimendua...
- Koordinazioa Gizarte Zerbitzuekin eta Udaleko Kultura Sailarekin.
- Proiektuen lan administratiboetan elkarlanean aritzea: izen-emate, parte-hartzearen jarraipena, matrikulazio kanpaina, publizitatea...
- Egin behar diren jardueri buruzko txostenak egitea, eta baita ere amaierako balorazio-txostenak egitea.
- Gazteei zuzendutako lokala dinamizatzea (Gaztetxoko proiektua, 11-16 urte bitartekoendako).
- Lokala ireki eta ixtea, eta bertan arduradun moduan egotea.
- Instalazioen zainketa egitea, eta arazorik balego Udalari jakinaraztea: argia, berogailua, hondakinen kudeaketa egokia, mobiliarioa...
- Eta lanpostuan aritzeko beharrezkotzat jotzen diren gainerako eginkizunak.

2.- Izangaiek bete beharreko baldintzak.

2.1. Oposizio-lehiaketa honetan onartuak izateko, izangaiek baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Espainiako herritarra izatea, edo Europako Batasuneko bertze estatu batekoa, edo langileen zirkulazio librea aplikatzen den eremuko estatu batekoa, Europako Batasunak sinatu eta Espainiak berretsitako nazioarteko itunak direla medio; orobat, espainiarren eta Europako Batasuneko bertze estatuetakoa herritarren ezkontideek hartu ahal dute parte, zuzenbidez bereizita ez badaude; halaber, haien ondorengoek eta ezkontidearenek, zuzenbidez bereizita ez badaude, 21 urtetik beherakoak badira, edo gorakoak, haien kontura biziz gero.

b) Adin nagusikoa izatea eta erretiroa nahitaez hartzeko gehieneko adina bete ez izana.

c) Dagozkion eginkizunetan aritzeko behar den gaitasun fisikoa zein psikikoa izatea.

d) Eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunean, gutxienez ere :

d.1) Batxilergoa edo 2. mailako Lanbide Heziketa edo horien baliokidea den titulua

d.2) Aisialdiko begirale titulua edo baliokidea. Honako titulazioak baliokideak izango dira:

o **FORMAZIO ARAUTUA**

ERDI MAILAKO LANBIDE HEZIKETAKO TITULUAK:

Honako hauetan teknikaria izatea:

- Natura, Heziketa Fisikoa eta Kirol Jardueretan Teknikaria (edo baliokideak)
- Arreta Soziosanitarioko Teknikaria, edo Menpekotasuna Duten Pertsonen Arretako Teknikaria

GOI MAILAKO LANBIDE HEZIKETAKO TITULUAK:

- Gorputz Edo Kirol Alorreko Animazioko Goi Mailako Teknikaria (edo baliokideak)
- Gizarte Eta Kultur Animazioko Goi Mailako Teknikaria (Eta Turistikoa)
- Haur Hezkuntzako Goi Mailako Teknikaria
- Gizarteratzeko Goi Mailako Teknikaria

DIPLOMATURAK, LIZENTZIAK EDO GRADUAK :

- Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako edo Hezkuntza Bereziko Irakaslea
- Hezkuntza edo Gizarte Lana
- Psikologia, Pedagogia edo Psikopedagogia
- Gorputz Heziketako eta Kiroletako Zientziak (edo baliokideak)

o **ARAUTU GABEKO FORMAZIOA**

- Aisialdiko Begiralea
- Aisialdiko Jardueretarako Begiralea
- Animatzaile Soziokulturala
- Begirale Soziokulturala

Tituluak edukitzea edo eskuratzeko baldintzetan egotea eskaerak aurkezte epearen azken egunean. Atzerrian lortutako tituluak badira, homologazioaren frogagiria eduki beharko da.

e) Eginkizun publikoetan aritzeko ezgaitu edo gabetua ez egotea eta administrazio publikoren baten zerbitzutik berezia ez izatea. Nazionalitate espainiarra ez duten izangaiek frogatu beharko dute beren Estatuko Funtzio Publikoan sartzea eragozten dien diziplina zehapenik edo zigor penalik ez dutela.

f) Langabeen egotea edo lana hobetzeko inskribaturik egotea.

g) Sexu Delitugileen Erregistro Zentralean sarturik ez egotea. Hautatutako pertsonak baimena ematen diote Etxarri Aranazko Udalarari Sexu Delitugileen Erregistro Zentralean sarturik ote dauden begiratzeko. Izan ere, adingabeekin lanbide, ogibide edo jarduerak egin nahi dituen orok ezin da inolaz ere Sexu Delitugileen Erregistro Zentralean inskribaturik egon, hala ezartzen baitu Haurrak babesteari buruzko uztailaren 28ko 26/2015 Legeak aldatutako urtarrilaren 15eko 1/1996 Legeak, bai eta Boluntarioei buruzko urriaren 14ko 45/2015 Legeak ere.

h) Euskara maila. Euskarazko ahozkoan C1 titulu baliokidea edukitzea, edo horri dagokion proba gainditzea. Euskara maila modu hauetan frogatu daiteke: C1 eskakizuna edo baliokide den beste titulu bat izatea. Titulurik eduki ezean izangaiak proba bat gainditu beharko du hizkuntz gaitasun nahikoa duela frogatzeko.

3.-Eskabideak.

Deialdian parte hartu nahi dutenek Etxarri Aranatzeko udalean aurkeztu beharko dituzte (Aurrez aurre: Kale Nagusia 10, Etxarri Aranatz 10:00-14:00 bitarte edo egoitza elektronikoa: <https://etxarriaranatz.egoitzaelektronikoa.eus/info.0>):

- a) Eransten den eskaera eredu (I Eranskina)
- b) NANaren kopia konpultsatua
- c) Deialdiak eskatzen duen titulazio akademikoa eta euskarakoa
- d) Hautagaiak lehiaketaldian kontuan hartzea nahi duen merituen justifikanteak aurkeztu beharko ditu: orijinalak edota kopia konpultsatuak. Ongi zehaztuak egon behar dira: kontratazio data zehatzak, enpresa kontratugilea, kontratu mota eta egindako funtzioak, lanaldia, ikastaroen iraupena, non eta nork emana.
- e) Currículum vitae

Ez dira zuzenduko egiaztatu ez diren agiriak. **Izena emateko aurkeztu behar den instantzia eta bestelako agiriak 2021eko azaroaren 16ko 12:00ak baino lehen izango da.** Etxarri Aranazko Udalaren Erregistroan aurkezten ez bada, udala@etxarriaranatz.eus helbide elektronikoa jakinarazi beharko da eskabideak aurkezteko epearen barruan, Udalaren administrazio-lana errazteko.

4.- Epaimahai kalifikatzailea

4.1.-Epaimahai kalifikatzailea kide hauek osatuko dute:

-Mahaiburua: Maria Saez de Albeniz Bregaña, Etxarri Aranazko zinegotzia. Ordezkoa, Udaleko alkatea, Silvia Marañon Chasco.

-Idazkaria: Udal idazkaria, Mateo Zubeldia Suso. Ordezkoa, Eskuordetzen duen pertsona

1. Mahaikidea Amaia Ijurra Araña, Etxarri Aranazko Kultur teknikaria. Ordezkoa, Eskuordetzen duen pertsona

2. Mahaikidea: Lucia Gonzalez de Pedroso Etxarri Aranazko Gizarte Zerbitzuetako Mankomunitateko hezitzailea. Ordezkoa, Eskuordetzen duen pertsona

Epaimahaia probak hasi baino lehen osatu beharko da.

4.2.-Epaimahaiak laguntzaileak eta aholkulariak sartu ahal izango ditu proba guztietarako edo batzuetarako. Aholkulari horiek beren espezialitate teknikoetan aritzera mugatuko dira, eta epaimahaiarekin lankidetzan arituko dira, horietan soilik oinarrituta.

5.-Lehiaketaldi-Oposizioa.

Lehiaketa-Oposizioa bi fase izango ditu
Prozedura malguago izateko, lehendabizi oposizioa egingo da eta gero, konkurtoa. Bakarrik proba praktikoa gainditzen dutenen merituak baloratuko dira.

6-Oposizioaren garapena (Gehenez 65 puntu)

6.1.-Oposizioa. Proba bat izango da.

Lehenengo proba: Proba praktikoa (Baztertzaila) beteko den lanpostuari dagozkion lanekin zerikusia duena eta aurkeztea.

Ariketa honen puntuazioa 65 puntu izango da. Gainditzeko gutxienez puntu erdiak lortu beharko dira.

Epaimahaiak erabakiko du alde batetik, proba hau egun batean edo gehiagotan egitea, eta bestetik proben iraupena.

Ariketa hasi baino lehen epaimahaiak proben iraupena zehaztuko du.

Proben emaitzak, eta hurrengo proben ordua, udaleko iragarki oholena jarriko da. Ez dira banakako jakinarazpenak edo deiak izango.

6.2.-Deialdi bakarra egingen da probetarako, eta haietara izangaiek nortasun agiri nazionala daramatela agertu beharko dute, eta horrela ez bada, deialditik kanpo geratuko dira.

7.Lehiaketaldia (35 puntu gehenez)

7.a)-Lan esperientzia. Gehenez 25 punturekin baloratuko da.

-Begirale moduan egindako beste ekintzengaitik, kirol, kultur, lukoteka....arlotan, hilabete bakoitzeko puntu 1.

- Hautaketa gai den lanpostu berdinetan, Udaletxetan edo beste Erakunde publikotan egindako lanagatik, 2 puntu hilabete bakoitzeko.
- Antzeko lanpostutan beste Udaletxetan edo Erakunde Publikotan egin den lanagatik, puntu 1 hilabete bakoitzeko.
- Udako kanpalditan puntu 1 hilabete bakoitzeko

- Gazteekin begirale moduan beste ekintza batzuetan: fisikoak, kirol, ludoteka, kultura arlotan eta abar. Puntu 1 hilabete bakoitzeko.
- Gazteekin zerikusirik duten eta lanpostuarekin harremana duten beste ekintzengatik, puntu 1, 2 hilabete bakoitzeko.

7.b)-Formazioa: gehienez ere 10 puntu baloratuko dira (betiere deialdiak eskatzen duen nahitaezko titulazio akademikoa ez denean)

- -Natur Guneetako Jarduera Fisikoen Gidari Izateko Teknikaria. Gehienez ere 5 puntu.
- -Animazioa Soziokulturaleko Goi Mailako Teknikaria. Gehienez ere 5 puntu.
- -Jarduera Fisikoak eta Deportiboak Animatzeko Goi Mailako Teknikaria. Gehienez ere 5 puntu.
- -Integrazio Sozialeko Goi Mailako Teknikaria. Gehienez ere 5 puntu.
- -Edozein espezialitateko Magisteritza, Psikologia, Pedagogia, Psikopedagogia, edo edozein titulu gaitzen duena, gainontzeko ataletan agertzen ez dena. Titulu bakoitzeko. Gehienez ere 6 puntu.
- -Gazteria eta Gizarte arloko masterra, edo antzekoa. Gehienez ere 4 puntu
- -Aisialdiko Begirale ikastaroa. Gehienez ere 4 puntu
- -Aisialdiko Jardueretako Begirale ikastaroa. Gehienez ere 4 puntu
- -Ingurugiro Arloko Hezkitako Begirale ikastaroa. Gehienez ere 4 puntu
- -Animazio Soziokulturaleko ikastaroa. Gehienez ere 4 puntu
- -Begirale Soziokulturaleko ikastaroa. Gehienez ere 4 puntu
- -Aisialdiko Zuzendari izateko ikastaroa. Gehienez ere 4 puntu
- -Aisialdiko Ingurugiro-tekniken ikastaroa. Gehienez ere 4 puntu
- -Honako ikastaroak: eskulanak, kirola, argazkilaritza, hezkuntza, ingurugiroa, dantza... erakunde publikoek emandakoak. Puntu bat 50 orduko.
- -Gizon eta emakumeen berdintasunari buruzko ikastaroak, jarduerari lotutako teknologia berriei buruzko edo gazteria arloko profesionalen zuzendutako ikastaroak (INJ). Puntu bat 50 orduko.
- -Honako ikastaroak: eskulanak, kirola, argazkilaritza, hezkuntza, ingurugiroa, dantza... Gazteria arloko profesionalen zuzendutako ikastaroak (INJ). Puntu bat 100 orduko, proportzionalki banatuta.

Aurreko ataletan aurreikusitako merezimenduak zenbatzeko, beti ere lehiatzaileak lan egin duen enpresaren edo administrazio publikoaren ziurtagirien bidez egiaztatuko direnak, kontuan hartuko dira bai lan araubide finkoan edo aldi baterakoan, bai administrazio araubidean, dela bitarteko gisa dela jabetzapeko lanpostuan, egindako zerbitzuak,

Frogaturiko esperientzia aldiak ez badu urteko osoa hartzen, behar den proportzionalitatea aterako da, eta hura hileko osoetan kalkulatu da eta kontuan hartuko dira gutxienez ere hileko osoa frogatzen duten kasuak.

Lanaldia osoa ez bada, orduan ere dagokion proportzionaltasunaren arabera kalkulatu da.

Aurkeztutako dokumentuetan argi adierazi behar du zein izan den lanaldia.

8.-Gaindituen zerrenda eta epaimahaiaren proposamena.

Azken proba kalifikatu eta gero, epaimahaiak emaitzak jendaurrean jarriko ditu Etxarri Aranazko Udalaren iragarki-taulan. Gaindituen zerrenda puntuazioaren hurrenkeraren arabera egingen da proben emaitzak batuz, eta horrekin batera etorkizunean erabiltzeko langileen zerrenda osatuko da.

Behar bezala justifikatutako ezinbesteko kasuetan izan ezik, hautatutako izangaia 5 eguneko epean kontratua sinatzera agertzen ez bada, ez da izendatua izango.

Aurreko atalean aurreikusitako kasuan, lehendakaritzak gainditzen dutenen zerrendan, ondo-ondotik heldu den izangaiarekin beteko du lanpostua, eta harekin aurreko ataletan adierazi bezala jokatu da.

9.-Lanpoltsaren funtzionamendua II eranskinean arautzen da.

10.- Datuak babestea.

(DBEO) 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 13. artikuluan ezarritakoaren arabera, honako hau jakinarazten zaie hautagaiei:

- Parte-hartzaileek emandako datu pertsonalen tratamenduaren arduraduna Etxarri Aranazko Udala da.
- Tratamenduaren helburua langileak hautatzea eta deialdi honen xede den lanpostua betetzea da.
- Oinarri juridikoa honako hau da: DBEOren 6.1.c). artikulua (tratamenduaren arduradunari aplikatu beharreko legezko betebeharrak bat betetzeko behar den tratamendua) eta DBEOren 6.1.b). artikulua (interesduna alderdi den kontratu bat gauzatzeko edo, hark eskatuta, kontratuaren aurreko neurriak aplikatzeko beharrezko tratamendua). bat betetzeko beharrezko tratamendua.
- Datuak gorde egingo dira biltzen diren helburua betetzeko eta deialdiaren eta datuen tratamenduaren ondorioz sor daitezkeen erantzukizunak zehazteko behar den denboran. Artxiboak eta dokumentazioari buruzko araudian xedatutakoa aplikatuko da (Artxiboak eta Dokumentuak arautzen dituen apirilaren 4ko 12/2007. Foru Legea eta Nafarroako toki-erakundeetako dokumentuak ebaluatzeko eta ezabatzeko jarraibideak).
- Datuak legez aurreikusitako kasuetan jakinaraziko dira (urriaren 30eko 5/2015 Errege Lege Dekretua), erabakiaren argitalpena barne, 5/2018 Foru Legearen 19.2.f artikuluekin bat eginez).
- Titularrek informazioa eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, mugatzeko, aurka egiteko eta transferitzeko eskubideak erabil ditzakete udal-bulegoetan, informazio gehiago jasotzen duten tokietan, edo datuen babeserako delegatuaren helbidean, dpd@etxarriaranatz.eus.
- Halaber, eskubidea dute Datuak Babesteko Espainiako Agentzian (aepd.es) erreklamazioa aurkezteko, baldin eta uste badute tratamendua ez datorrela bat indarreko araudiarekin.

11.-Helegiteak

Erabaki honen kontra helegite hauetako bat paratzen ahalko da:

- a) BERRAZTERTZEKO helegitea ebazpena eman duen organoari zuzendua, ebazpen hau jakinarazi eta biharamunetik hasita HILABETE BATEKO epean.
- b)- ADMINISTRAZIOAREKIKO helegitea, Nafarroako Auzitegi Nagusian dagokion sailari zuzendua, edo Administrazioarekiko Epaitegiari zuzendua, ebazpen hau jakinarazi eta biharamunetik hasita BI HILABETEKO epean.-
- c)- GORA JOTZEKO helegitea, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, HILABETE BATEKO epean, ebazpen hau jakinarazten denetik hasita.

Elektronikoki sinatutako dokumentua

Alkatea

Silvia Marañon Chasco

I. ERANSKINA

ESKABIDEA

Etxarri Aranazko Udala.

Izena:, adinez nagusia, Nortasun Agiri Nazionalaren zenbakia: (edo balio bereko bertze agiriren bat), sorteguna:, sorterrria: (.....), egungo helbidea: (.....), karrika: posta kodea: telefonoa: sakelako telefonoa: e-posta:

ADIERAZTEN DU:

Onartua izatea eskatzen dudala Etxarri Aranazko Udalean aisialdiko begiraleko lanak egiteko.

Ez dudala karguan aritzea galarazten didan eritasunik edo akats fisikorik nahiz psikikorik.

Indarra duten xedapenetan ezarritako ezintasunik ez dudala.

Ez naizela diziplinako espediente bidez ezein administrazio publikoren zerbitzutik berezia izan eta ez nagoela desgaitua eginkizun publikoak betetzeko.

Deialdian eskatzen den titulazioaren jabe naizela.

Eskaerak aurkezteko epearen azken egunean beharkizun guztiak betetzen ditudala.

–Behar den euskara maila dudala frogatu dut.

–Euskarazko aukerako proba egin nahi dut.

Epaimahaiari baimena ematen diodala nire sakelako telefonora deitzeko hurrengo hautaprobak non, noiz eta zer ordutan egingen diren ohartaraz diezadan.

HORIEK HORRELA,

Eskaera hau ontzat har dezatela eta aipatu deialdian onar nazatela eskatzen dut.

Etxarri Aranazen, 20...(e)koaren ...(e)an

(Sinadura)

II. ERANSKINA

KONTRATAZIOA KUDEATZEKO ARAUAK

1. artikulua. Xedea eta aplikazio eremua

Ebazpen honen xedea da Etxarri Aranazko Udaleko aisialdiko begiraleko lanpostuetan aldi baterako kontratazioaren bidez aritu nahi duten izangaien zerrendak kudeatzeko arauak ezartzea.

2.-Artikulua. Zerrenda osatzea

1. Aldi baterako kontratatzeke izangaien zerrendan sartuko dira hautapen proba praktikoan ezarritako gehieneko puntuazioaren gutxienez %25 lortzen duten izangaiak.

2. Izangaien zerrendan lehentasuna finkatzeko, probetan lortutako puntuazioari erreparatuko zaio, handienetik txikienera.

3. Artikulu honen bidez osatzen diren zerrendek bost urteko indarraldia izanen dute gehienez, onesten direnetik hasita eta hurrengo lan poltsa sortu arte.

Zerrenden indarraldia bitartean, halako lanpostuetarako beste zerrendaren bat osatzen bada, berrikiago onetsitako zerrendetako izangaiak lehenetsiko dira zerrenda zaharragokoen aurretik.

4. Kanpainarako kontratazioen kasuan, edo diru laguntza batekin lotuta daudenak, eta betiere behar bezala justifikatuko ohiz kanpoko presako arrazoiak badaude, Nafarroako Enplegu Zerbitzuari eskatzen ahalko zaio izangaien zerrenda bat bidal dezan.

5. Eragimena eta eraginkortasuna helburu, aldi baterako kontratazioetarako izangai zerrendak prestatzeko deialdietan lanaldi partzialean kontratatuak izateko aukera eskaintzen ahalko zaie izangaiei.

3. artikulua. Deiak egiteko arau orokorrak.

1. Errazago aurkitu ahal izateko, izangaiek harremanetarako telefono bat bederen jakinarazi beharko dute. Horrez gainera, harremanetarako beste telefono batzuk edo helbide elektroniko bat eman ditzakete. Informazio horrek etengabe eguneratua egon beharko du. Datu hauek prozesuan parte hartzeko instantziatik hartuko dira. Interesdunak datuak eguneratu edota aldatu daiteke.

2. Izangaiei deitzeko orduan, aurretik ezarritako lehentasun irizpideak hartuko dira kontuan.

3. Oro har, telefonoz kontratu bat eskaintzeko, gutxienez hiru saiakera egingen dira izangai bakoitzarekin, hark jakinarazitako bideak erabiliz, eta deiak bi eguneko epean banatuz.

Dei bakoitzaren oharra jasoko da, gorabeherak, eguna eta ordua aipaturik.

4. Izangai batekin harremanetan jarri eta kontratatzeko eskaintza eginez gero, erantzuten ez badu, uko egiten diola ondorioztatuko da eta 7. artikuluan xedatutakoa aplikatuko zaio.

5. Izangai batekin harremanetan jartzerik ez bada, zerrendan hurrengo denari deituko zaio, harik eta eskaintzen diren lanpostu guztiak bete arte.

Harremanetan jartzerik izan ez duten izangaiek zerrendan zuten postuari eutsiko diote.

6. Hasiera batean hilabeteko edo laburragoak diren kontratazioak, behin baimendu ondoren, haiekin harremanetan jarrita lanean berehala hastea onartzen duen lehenengo izangaiari eskainiko zaizkio, artikulua honen 3. idatz-zatian ezarritakoa bete behar izan gabe.

7. Kontratu bat onartzen duten izangaiei ez zaie beste lanpostu batean aritzeko kontraturik eskainiko, lanaldi partzialen kasuan izan ezik. Lanaldi partzialeko aldi baterako kontratazioetan, ahaleginak egiten dira lanaldia udalan sortzen diren beste behar batzuekin osatzeko, betiere kontratu berarekin egitea posible bada eta interesduna ados baldin badago.

8.-Izangaia kaso bakoitzean esaten zaioen epean kontratua onartu beharko du, bestela ukatzen duela ulertuko da. Epe hau ez da inoiz 24 ordu baino luzeago izango.

4. artikulua. Deietarako lehentasun berezia.

1. Deietarako orokorrean ezarritakoa deusetan ukitu gabe, izangai bat aldi baterako kontratu baten bidez lanpostu batean aritu bada eta, kontratu hori bukatu eta hurrengo 6 hilabete epearen barruan, zerbitzu berean lanpostu berdina aldi baterako betetzea baimentzen bada, Administrazioak izangai berari eskainiko dio kontratua, betiere dei egiten zaion mementuan baldintza hauek betetzen badira:

a) Deia egiten den momentuan indarra duen zerrenda batean egotea izangaia.

b) Aurreko kontratuaren bukaeraren arrazoia ez izatea hari uko egin izana.

5. artikulua. Presako deiak.

Behar bezala frogatutako presako kasuetan, kontratazioa, behin baimendu ondoren, harekin harremanetan jarrita lanean berehala hastea onartzen duen lehenengo izangaiari eskainiko zaio, 3.3 artikuluan ezarritakoa bete behar izan gabe.

6. artikulua. Deiak amatasunaren edo adopzioaren lizentzia kasuetan.

1. Amatasunaren (eta ez aitatasuna) edo adopzioaren lizentzia hartzeko ezarrita dagoen epearen barruan aldi baterako kontratu bat sinatzeko deia jaso eta kontratua onartzen duten izangaiei lanpostu hori erreserbatuko zaie lanean benetan hasten diren arte, orduan sinatuko baitute kontratua.

2. Kontratua onartzen ahalko dute, bakar-bakarrik, baldin eta aurreikusitako iraupenak bide ematen badie lanpostuan benetan hasteko.

3. Lanpostuan sartuko dira amatasunaren edo adopzioaren lizentziarako ezarritako epea bukatzen den egunean, edo lehenago, interesdunak eskatzen badu, baina betiere erditu ondoren amarentzat ezarritako nahitaezko atsedenaldira bukatuta.

4. Horrelakoetan, amatasuna edo adopzioa gertatu izan ez balitz lanpostuan hasiko zatekeen egunetik lanpostuan benetan hasten den egunera arte doan epea Administrazioan emandako zerbitzu gisa onartuko da. Aldi hori onartuko zaio kontratua sinatzen baldin badu eta ondorioak izanen ditu lanpostuan hasten den unetik aurrera.

7. artikulua. Kontratatzeko eskaintzari uko egitea.

1. Izangairen batek eskaini zaion lanpostuari uko egiten baldin badio, zerrendatik at geratuko da, salbu eta ondoko egoera batean dagoela frogatzen badu:

a) Indarrean dagoen izendapen, kontratu administratibo edo lan kontratu batengatik horretara behartua egotea.

b) Lanaldi partzialeko kontratu bati uko egitea, parte hartzeko eskabidean aukera hori hautatu ez bazuen. Lanaldi partzialeko kontratu bat onartuz gero, 10.3 artikuluan ezarritakoari jarraikiko zaio.

d) Aldi baterako ezintasun egoeran izatea edo umea izan edo adoptatzeagatik lizentzia izatea. Arrazoi hori dela kausa kontratu bati uko egiten dioten izangaiak ez dira berriz deitzeko moduan egonen, harik eta behar bezala frogatu arte uko egitea justifikatu zuen egoera bukatu dela.

e) 3 urte baino gutxiagoko semea edo alaba, norberak izandakoa zein adoptatua, zaindu beharrean egotea. Arrazoi hori dela kausa kontratu bati uko egiten dioten izangaiak ez dira berriz deitzeko moduan egonen, harik eta kontratuari uko egin zioten egunetik gutxienez hilabete bat igaro arte, salbu eta hura eragin zuen arrazoia lehenago desagertzen bada.

f) Bigarren gradura arteko odol- edo ezkontza-ahaide bat, adina, istripua edo eritasuna dela-kausa bere burua ezin gobernatu duena, zaindu behar izatea. Arrazoi hori dela kausa kontratu bati uko egiten dioten izangaiak ez dira berriz deitzeko moduan egonen, harik eta kontratuari uko egin zioten egunetik gutxienez hilabete bat igaro arte, salbu eta hura eragin zuen arrazoia lehenago desagertzen bada.

g) Izangaia ezkondu berria edo, Bikote Egonkorrentzako Berdintasun Juridikoari buruzko uztailaren 3ko 6/2000 Legearen arabera, parekatutako egoeran sartu berria izatea, eskainitako kontratuaren hasiera eguna bikotea eratu ondoko edo eratu aurreko hamabost egun naturaletan bada.

h) Desgaitasunen bat behar bezala onartua izatea eta desgaitasunaren ezaugarriak bateraezinak izatea eskaintzen zaion lanpostuaren ezaugarri bereziekin.

2. Aurreko idatz-zatian jasotako kasuetan, h) letretan izan ezik, izangaiek zerbitzu emateko moduan daudela jakinarazi beharko dute. Jakinarazpen hori egin bitarte, izangaiek ez dira deitzeko moduan izanen, eta ez zaie inolako lanposturik eskainiko sartuta dauden zerrendetatik. a), e) eta f) letretako kasuetan, arrazoi eragile bera bi aldiz baino ezin izanen da erabili ukoa justifikatzeko arrazoi gisa.

3. Artikulu honetako 1. idatz-zatian adierazitako egoeretako batean, h) letrakoan izan ezik, dauden izangaiek hilabeteko epea izanen dute, uko egiten dioten lanpostua eskaintzen zaien egunetik, agiri

bidez eta behar bezala justifikatzeko. Hala eginez gero, lanpostuari uko egin ziotenean zerrendan zuten toki berean jarraituko dute.

4. Lanpostu baterako aldi baterako kontratazioak egiteko izangai zerrenda eremuka antolatua baldin badago, deien eta uko egiteen ondorioetarako, zerrenda independentetzat joko da hasierako zerrenda banatzen deneko eremuetako zerrenda bakoitza.

8. artikulua. Zerrendetatik baztertzea.

Deia eragiten duen zerrendatik baztertuko dira ondoko egoera hauetako batean dauden izangaiak:

- a) Eskainitako lanpostuari arrazoirik gabe uko egitea.
- b) Dei egin eta lanpostua onartu ondotik, kontratua ez sinatzea, izangaiari egotzi beharreko arrazioengatik.
- c) Probaldia ez gainditzea.
- d) Sinatutako kontratuari uko egitea, salbu eta ukoaren zergatia izangaia Etxarri Aranazko Udalan eta haren erakunde autonomoetan funtzionario gisa edo lan kontratatu gisa sartu dela baldin bada, maila bereko edo baxuagoko beste lanpostu batean aritzeko, edo arau honen 3.8 artikuluan ezarritakoaren ondorioz.
- e) Urtebeteko epean izangaiarekin harremanetan jartzea ezinezkoa izatea, hark emandako telefonoaren edo helbide elektronikoaren bidez kontratatzeko deiak behin eta berriz eginda ere.
- f) Etxarri Aranazko udalan eta haren erakunde autonomoetan funtzionario gisa edo lan kontratatu gisa sartzeko lanpostu berean edo maila altuagoko beste batean jarduteko.
- g) Lanpostua bertan behera uztea.
- h) Kontratua amaitzea gerora sortutako arrazoiak direla kausa, hain zuzen, kontratatzen den langilea lanpostuan aritzeko gaitasun edo egokitzapen faltagatik, horrek lanpostuak dituen eginkizunak eraginkortasunez betetzea galarazten duen errendimendu eskasa badakar.